

# B

BARREN

TOKIKOM



**36ko Gerra,  
oroimenean bizirik**



# UDAKO IKASTARO TRINKOAK

ALEMANA, FRANTSESA, INGELESA ETA ITALIERA

## Industry Language Services

inglés

francés

alemán

italiano

chino

Ordutegia  
Asteleheneretik ostiralera  
2 edo 4 ordu egunean

Informazioa, matrikula eta ordutegiak:

Ikastaroaren ordu  
kopurua: 40

[www.ils.es](http://www.ils.es)

943 744 040

Ekainaren 4tik 29ra  
Uztailak 2tik 13ra

Maila guztiak

Orokorra eta  
komertziala

Talde murriztuak



INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES



Azkuze Autod 1 (IMH)  
20870 ELGOIBAR



# Garamel Goxokiak

San Frantzisko Kalea, 44

- Goxokiak
- Jostailuak
- Opilak
- Izozkiak
- Tarta Izoztuak
- Etxeko postreak, enkarguz
- Urtebetetze ospakizunetarako goxoki zorroak prestatzen ditugu

Gaur, maiatzak 11  
**INAUGURAZIOA**  
19:00etatik 21:00etara





**Amaia  
Larrañaga**

Jose Luis, gaurkoan gure sustraietako baten inguruan jardutekotan nator, izan ere, uste dut sustrairik ezean, ez dagoela luzaroan bizi izaterik, horixe gertatzen zaie landareei eta horixe guri ere. Aipatutako sustraia Udalak eskatuta egin den leku-izenen ingurukoa da, toponimia deritzonarena,



**Jose Luis  
Azpillaga**

hain zuzen. Egindako lana dela-eta, ateratako liburuxkan dioten bezala, horretarako arrazoiak egon badaude, besteak beste hizkuntza eta inguruarekikoak.

Biak ere garrantzitsuak izanda, nik hizkuntzarekikoei erreparatu diet, batez ere, akaso, gure lanak eragiten digun gaitza izango da horren sortzailea, nahiz eta horrekin beste alderdiari garrantzirik kendu nahi ez, jakina. Aurkako iritziak entzun baditut ere, egin beharrekotzat hartu nuen leku-izenen gainekoa, horrek iraganaren berri ematen baitigu, gure historiaren berri, izan ere, esate baterako, zergatik da KALEGOEN plaza edo URAZANDI auzoa edo SAGARZURIETA baserria? lehenagokoak esan zuen bezala “izan zirelako gara eta garelako izango dira”, bestela, poliki-poliki, kontu asko galtzen dihardugunez, berreskuratu ezik, gureak egin du.

### “Lana egin da, eta orain geuri dagokigu leku-izen horiek ganoraz erabiltzea”

Lana egin da eta orain geuri dagokigu, herritarroi, horiek ganoraz erabiltzea, beste kontu askotan bezala, ohitura hartzea da eta: zer kostatzen da URAZANDI S-z beharrean Z-z idaztea? Edo P. MUGURUTZA (MUGURUZAREN orde) etorbidea jartzea? (honek ere badu bere historia)... Sarri uste izaten dut aldaketen aurkako joera daukagula kontu batzuetan (nola hasiko gara orain S. Pedro esan beharrean Idortorbe esaten?), batez ere, euskara tartean bada, beste batzuetan, oster, segituan ohitzen gara (¿qué tal los aítas?). Zer diok, J.Luis?

Neure inguruan ere entzun ditut izen-aldaketa batzuen aurkako keak: “Uparitzaga? Tira-tira, hori beti Upaiz-zaharra izan da, barren”. Ni ez naiz Elgoibarkoa, eta, beharbada, ez naiz egokiena horrelako gauzen gainean berba egiteko. Hala ere, horrelako aldaketak egiten direnean, arrazoi sendoak egongo direla pentsatzen dut. Maparekin batera emandako liburuxkan begiratu dut, eta honakoak irakurri ditut: “Toponimoak ez dira betirako, erabiltzen ez den toponimoa desagertu egiten baita...”, “...toponimia bizirik mantenduz gero, edota berau jasota baldin badago, gure sustriaren berri emango digu. Hortik dator leku izenak biltzearen garrantzia”.

Gustuko ditut mapak, eta atsegin hartzen dut haietan izen misteriotsu edo bitxiak aurkitzen ditudanean. Elgoibarko mapan ikusmiran ibili naiz, eta, niretzat behintzat, izen bitxi askoak aurkitu ditut: Jibraltar, Bertutesoro, Ankabikoa, Berdun, Seigazteak, Panparrogoa, Lorituaneke aldapa... Izenok badute gure historiaren eta kulturaren zatitxo bat, eta baita nolabaiteko magia ere: gure irudimenean askotariko istorioak sorrarazteko gai dira. Ongi etorri, beraz, nire aldetik behinik behin, toponimo tradizional eta jator guztiak!

### “Ongi etorri, nire aldetik, toponimo tradizional eta jator guztiak!”

Erabilerak kezkatzen zaitu, Amaia. Lehengoan, banatzaile bat etorri zen euskaltegira pakete batekin. Helbidean: Kalebarren plaza (lehen Nafarroa plaza). Hara! – pentsatu nuen- hasi dira izen berriak agertzen! Uste dut izen batzuekin berehala ohituko garela. Beste batzuekin, berriz, gehiago kostako da akaso: lehengo Foruen plaza Kalegoen plaza da orain, baina nik ia beti Plaza Haundixa entzun izan dut. Aita Agirre plazari ere Plaza Txikixa deitzen zaio, ezta? Herritarro ohiturak aldatzea, batzuetan, ez da hain erraza izaten, baina Plaza Txikiari ez diezaiola behintzat inork Plaza “Txikita” deitu!

**Jarri ezazu zure publizitatea**

**[barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)**

**B**

**BARREN  
astekarian  
943 744 112**



# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,  
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA  
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN  
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK  
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres  
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,  
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai  
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus  
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes  
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa  
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,  
Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop.  
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-  
1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:



## Laguntzaileak:




ELGOIBARKO USTIA



MENDAKO UDALA



AIRE AIRE 12



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Atez ate III

Gezuraren definizioa: nahita, norberanismoz eta fede ez oso onez, emandako argumentu okerra. Hainbat gezur ari dira zabalitzen atez ateko zabor bilketaren inguruan. Urko Apaolaza hernaniarraren baimenez hemen nagusienak:

Errauskailua berdin beharko da. Gezurra borobil-borobil-borobila. Atez atekoarekin %85etik gora ere birziklatu daiteke (Antzuolan %90 birziklatzen dute). Geratzen den apurra, hondakin "inerte" da (kutsatzen ez duena) eta ez legoke arazorik edozein tokitan biltzeko, erraustu behar izan gabe, obretako lurra harrobiak berreskuratzeko biltzen den bezalaxe. Dena den, horrela hasita, ez da egia errauskailuarekin zabortegien aroa amaitzen denik: errauskailutik ateratako eskoriak eta errauts toxikoak zabortegi batean bildu beharko dira (Mutiloan, agidanez), eta askoz arrisksuagoa izango da.

Begira, begira... nola dauden atez atekoa egiten den herrietan. Bai, esaten dute Hernanin arratoi-matoi batzuek mutiko bat eraso zutela kuboa hartzera zihoanean. Eta txotx denboraldia bertan behera geratu omen da jenderik ez datorrelako. Eta zabormendiak ei daude lehen parkeak zeuden tokian. Joan Hernanira, Antzuolara edo Usurbilera, eta ikusi zeuon begiekin.

### Mendaro Zero Zabor ☹

### Eskerrik asko danoi!!

Bi hitz bakarrik ditugu ahuan: Eskerrik asko!

Apirilleko azken asteburuan estatuko lehenengo maillako igoera fasia jokatu genduan eta eskerrak eman nahi diegu modu batian edo bestian lagundu diguen guztixei.

Lehenik eta behin, eskerrak eman fasia etxian antolatzea posible egin deben babesle guztixei, batetik, eta Sanloko zuzendaritzari, bestetik. Nahiz eta kanpotik ez ikusi, lan haundia egin debe bihar zian baliabide guztixak lortzeko eta fasia aurrera ateratzeko.

Ivan eta Sanchez DJ-speakerak ere eskertu nahi ditugu, euren hitz eta musikiakin sortutako giruagaittik. Eta zelan ez, boronda-

tez etorri dian muskarixak. Harek ere giro aparta sortu zebelako zuzeneko musikiakin.

Bestalde, Ainhoa fisioterapiako Sareri eskerrak eman nahi dizkiogu, fasiak iraun zuan egunetan gure kontraktura eta gainkargak arintzen jardun zebako.

Eta zer esan kiroldegiko tabernako Juanluis, Inma, Toñi, Kontxi... buruz. Azpimarragarria izan da eurek egindako lana ere.

Eskerrik asko Lorea eta Igorri ere, urte osuan egindako lanakin iritsi garan lekuraño bultzatu gaituzuelako.

Eta amaitzeko eskerrik asko partiduak ikustera etorri zeraten guztixoi, baiña ez faseko astebukaeran etortziagaittik bakarrik, bai zik eta urte osuan demostrau diguzuen berotasunagaittik. Oso emozionantia izan da gradak jendez beteta ikustia. Eskerrik asko gurasuei ere hor egotziagaittik eta baita ere kanpua izan dittugun partiduetara juatiagaittik, partiduak grabatziagaittik, delegau lana primeran betetziagaittik...

Besterik gabe, eskerrik asko danoi fase hau iñoiz ahaztuko ez degun fase billakatzia-gaittik.

Eta ahaztu baiño lehen, zorionak Alcortako mutillei egin deben urtia eta fasiagaittik, eta ia maiatzak 18-19-20ko asteburuko fasian maillaz igotzia lortzen deuzen!! Elkar gaitzen beste behin eta oihuka dezagun **SIRE KETAKE BU!**

### Tecnifuelleko neskek ☹





**Herri Eskolara iristeko bidea oso egoera txarrean**

**dago:** "Herri Eskola aurreko bidean baldosak puskatuta eta solte daude. Lurra oso irregularra da, eta umeen aulkiaekin ibiltzeko ez da bate-re eroso. Jende asko ibiltzen da egunero ingurune horretan, eta konpondu beharra dagoela iruditzen zaigu. Ikastetxe bateko ataria hobeto zaindu behar da".



**Galiziarren ospakizunean etxe aurrean jari zizkiguten parrillak:** "Zarata egotea onargarria da, baina parrillak etxeko leiho aurrean jartzea ez. Hiru egunez leihoak ireki gabe eta arropak eskegi ezinda egon gara Plaza Txikira begira bizi garenok. Beste aldean ez da inor bizi, eta hurrengorako eskertuko genuke parrillak alde hartan jartzea".

**Bernardo Ezenarro kalean zamalanak egiteko gunea jarri dute:** "Lehen dauzkagu herri honetan aparkatzeko arazoak eta orain aparkaleku pila bat kendu dizkigute Bernardo Ezenarro kalean! Zertarako jarri dute zamalanetarako gunea hor? Osasun Zentroarentzat aparkaleku batzuk gordetzea ulertzekoa da, baina zamalanak egiteko gunea hor jartzeak ez dauka zentzurik".



**Eskerrik asko Kalamua Guraso Elkarteari:** "Liburuaren egunaren harira, aurren ere

ipuin kontalaria egitasmoa antolatu du Herri Eskolan. Ekintza arrakastatsua benetan! 21 guraso izan dira ipuinak kontatzen euren seme-alaben geletan. Umeez primeran pasatu dute, eta gurasoek zer esanik ez! Seme-alaben hezkuntzan parte hartzeko hamai-ka bide daude, eta guztiak jorratuko dituzte Kalamua Guraso Elkarteok. Jarrai dezala bide horretan, haurren hezkuntza guztion ardura delako. Zorionak parte hartzaile guztioi, eta datorren urtean berriro ikusiko dugu elkar".



## Euskararen erabilera %51koa da gaur egun IMHn, eta 2015erako %15ean handitu nahi dute

13.157 zerbitzu eta prestakuntza ordu (%35) eskaini dituzte euskaraz 2011n

**E**uskara sustatzeko Goazen plana 2003an jarri zuen martxan IMHK, eta ordutik nabarmen egin du gora euskararen erabilera ikastetxean. Gaur egun %51koa da euskararen erabilera IMHn, hortaz, egiten dutenaren erdia baino gehiago egiten dute euskaraz. 2003an, %32koa zen erabilera, eta 2015. urterako %65era igotzea da euren helburua. Urtetik urtera prestakuntza eta zerbitzu ordu gehiago eskaintzen ditu IMHK euskaraz. Iaz, 13.157 ordu izan ziren, hau da, eskaintza osoaren %35. IMHko arduradunek adierazi dutenez, zortzi urteren ondoren euskararen presentzia IMHko prestakuntza eta zerbitzu guztietan "nabaria da eta bermatuta dago".



### Udalarekin hitzarmena

Euskararekiko duten konpromisoa sustatzeko hitzarmena berri dute Elgoibarko Udalak eta IMHK Aurten 2.700 euro emango dizkio Udalak ikastetxeari, erreminta makinaren sektorean euskararen

erabilera sustatzeko. Ane Beitia Udaleko Euskara Batzorde buruak, Joxean Egaña, Makina Erremintaren Institutuko Zuzendaria eta Edurne Bilbao, IMHko hizkuntza koordinatzaileak hartu zuten parte sinadura ekitaldian.

### Domekara arte egongo da zabalik garagardoaren feria

Atzo ireki zuten garagardoaren feria Madalan, eta domekara arte egongo da zabalik. Nagusien Danborradaren Batzordeak antolatu du feria, Trinitateetako danborradarako dirua biltzeko. Sei garagardo mota ekarri dituzte aurten. Horrez gain, txerri-ukondoak, saltxitxak eta oilaskoa ere eskainiko dituzte. Aurtengo berrikuntza modura, koadrilen arteko lehiaketa bitxia antolatu dute: esku banatan bost garagardo pitxar hartuta, eszenatokian korrika egin beharko dute bost minutuan, eta buelta gehien ematen dituenak irabaziko du. Horrez gain, Kirkil DJaren emanaldia izango da gaur eta bihar.



### 'Baketik' egitasmoa aurkeztuko dute eguenean, Elgoibarko udaletxean

Bizikidetza eta berradiskidetze kultura eraikitzen laguntzeko egitasmoa jarri du martxan Elgoibarko Udalak, eta datorren eguenean aurkeztuko du, udaletxeko pleno aretoan. Herritar guztiak gonbidatu dituzte egitasmoan parte hartzera, herritar guztien konpromiso soziala eta pertsonala beharrezkoa dela uste dutelako. Udaleko ordezkarienez gain, Lokarri eta Baketik elkarteetako kideek hartuko dute parte aurkezpen ekitaldian. Aurkezpena 19:00etan hasiko da.

### %8,2 hazi da eskaera zorroa erreminta makinaren sektorean

Espero baino hobeto hasi dute urtea erreminta makinaren sektoreak eta fabrikazio teknologiararen sektoreak. Eskaeren zorroa %8,2 handitu da lehen seihilekoan, gehienbat kanpoko merkatuetatik jasotako eskaerengatik. Iazko urtearen balantzea egiteko agerraldia egin dute aste honetan Jose Ignacio Torrecilla AFMko presidentea eta Xabier Ortueta zuzendari nagusiak. Zenbakiei huts-hutsean begiratuz gero, 2011. urtea ona izan zela adierazi dute. Hala ere, enpresek ez dute uste baikorregi egoteko momentua denik. Kezkatuta daude, merkatuetan gorabeherak daudelako eta bezeroen ziurtasunik ez dutelako.



## Izena **Nerea Alustiza**



Eusko Jaurlaritzako Administrazio Publiko Hitzkuntza Normalizatorako zuzendari izendatu dute Nerea Alustiza PSE-EEko zinegotzia. Aurreko astean dimisioa aurkeztu zuen Patxi Martínez de Marigorta ordezkatu-ko du zinegotzi eibartarrak, Blanca Urgell buru duen Kultura Sailean. Alustizaren erronka nagusia Administrazio Publikoetarako euskararen erabileraren inguruko plan berria martxan ipintzea izango da.

## Izena **Ainhoa Mendibil**

Arazoi profesionalak tarteko, Bilduko zinegotzi izateari laga dio Ainhoa Mendibilek. Aurrerantzean, Maite Elizburuk beteko du Elgoibarko Udalean Mendibilek lagatako lekua. Era berean, Aitor Agirrebeñak Bilduko zinegotzi izateari uko egin zion Mendaroko Udalean martxo bukaerako Osoko Bilkuran, arazoi pertsonalak tarteko, zinegotzi karguari behar besteko dedikaziorik ezin ziola eskaini arrazoituta. Jose Maria Zubierremerteriak hartu zion lekukoa Agirrebeñari.



## Irudia **Galiziarren jaiak**



Ovidio Campello Galizia etxeko presidente eta hiru legealditan PSE-EEko zinegotzia izan zenari egindako omenaldiarekin hasi dituzte aurten galiziarren jaiak. Emudafe Galiziako Etxeen elkarteko eta Udaleko ordezkariak hartu zuten parte barixaku arratsaldean egin zuten omenaldi ekitaldian. Ovidio Campelloren bi semeak, Sergio eta Roberto, eta iloba bat ere bertan izan ziren. Barixakutik domekara Galiziako produktuak dastatzeko eta galiziarren ohiturez gozatzeko aukera izan da Aita Agirre plazan (Plaza Txikia) eta inguruan.

## **Odol ateratzeak egingo dira gaur Elgoibarren**

Odol ateratzeak egingo dira gaur Elgoibarren, 18:30etik 20:30era bitartean Odol emaleek anbulategi ondoan duten lokalean. Odol premia handia dagoela ohartarazi du Odol Emaileen Elkarteak, eta odola ematera deitu dituzte elgoibartar guztiak, bereziki gazteak.

## **Maiatzean ere eskuratu ahal izango dira okelarentzako eta arrainarentzako tupperak**

Pazko astean okelarentzako eta arrainarentzako tupperrak jaso ezin izan zituzten elgoibartarrek maiatze-ko eguetan eta zapatuetan eskuratu ahal izango dituzte (9:00etatik 13:00etara), azoka plazan horretarako propio egokituko duten saltoki batean. Kutxak eta Udalak banatuko dituzte tupperrak, erosketetan plastikozko poltsa eta paper gutxiago erabiltzeko bideratu den kanpainaren barruan. Plastikozko ontzi berrerabilgarriak eskuratu nahi dituztenek NA-Na aurkeztu beharko dute.

## **Udan zaharren egoitzetan egonaldiak egiteko eskaerak aurkezteko epea ireki dute**

Uztaila, abuztua eta irailean zaharren egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko aukera eskaintzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta dagoeneko zabaldu dute eskabideak aurkezteko epea. Uztailean aldi baterako egonaldiak egin nahi dituztenek maiatzaren 18rako aurkeztu behar dute eskaera, abuztuan egin nahi dituztenek maiatzaren 31rako, eta irailean egin nahi dituztenek ekainaren 15erako. Informazio gehiagorako Ongizate Sailera jo behar da.

## **Lurraldebus txartelarekin tren txartelak erosi daitezke**

Lurraldebus txartela Renfeko aldiriko tren bidaiak ordaintzeko erabili ahal izango da aurrerantzean. Astelehenaz geroztik, Renferen leihatiletan tren txartelak erosi ahal dira Lurraldebus txartelarekin ordainduta.

# GERRA, ELGOIBARTARREN AHOTAN



**36ko Gerrak bizirik dirau orduan ume zirenen oroimenean. 75 urte bete dira Francoren tropek hirien kontrako bonbardaketak egin zituztenetik, eta urteurren hori aitzakiatzat hartuta, gerraren gordina ezagutu zuten elgoibartar talde baten testigantzak batu ditu BARRENEK. Garai zailak izan ziren. Gerrak herritarren arteko hartuemanak ere gaiztotu zituen, eta orduan bizitakoak gogora ekartzea bera ere gogorra egin zaie askori. Zauriak guztiz itxi ez diren seinale, elkarrizketatuen artean izan dira izena eman nahi izan ez dutenak ere.**

Ainara Argoitia

zua erein behar da. Mendekotasun tentsazioa laga behar da, guk bezala pentsatzen ez dutenak eskrupulorik gabe desagerraraziz [...]”. Militarren altxamendua izan eta bi egunera, 1936ko uztailaren 19an, Mola jeneralak argi esan zuen zer zetorren, Iruñeko Gaztelu Plazan milaka erreketaren aurrean egindako agerraldian. Gerra hasi zuten. Irailaren 13an Donostia hartu zuten, eta eragozpen handirik gabe zetozen aurrera, Bizkaia hartzera.

Gipuzkoatik errefuxiatuak hasi ziren iristen, eta haiekin batera berri txar ugari ere bai, eta jakina, urduritasuna eta beldurra nagusitu ziren elgoibartarren artean. Jendeak pentsatu zuen erreketek berehala sartuko zirela, eta, izututa, herritar askok ihesari eman zioten iraila aldera. Ardura politikoren bat zuten ezkertiar eta abertzaleek frankisten jazarraldiaren beldurra zuten, Gipuzkoan gertatu ziren fusilamendu eta atxiloketen berri zutelako eta asko berehala desagertu ziren. Gazte

askok ere ihes egin zuten, pentsatzen zutelako erreketek eurekin eramango zituztela frontera. “Askok berba egiten zen erreketek hartzen zituzten herrietan egiten zituzten atxiloketen eta fusilamenduen gainean, eta jendeak beldur handia zien”, gogoratu du Miren Vallejok (Elgoibar, 1923). Hala, askok Markina alderako bidea hartu zuten irailaren 20ko goizaldean. Horixe egin zuten Elgoibarko Ansola anaiek, adibidez. Ama markinarra zuten, eta amaren jaiotxera ihes egin zuten, frankistengandik ihesi. Jose Ansola, batez ere, oso inplikatu zegoen Elgoibarren, abertzalea eta ELA sindikatukoa zelako, eta erreprezioaren beldur zen. Ansolatarren aita, Laureano Ansola, Elgoibarren gelditu zen, eta berehala atxilotu eta erreketen txapel gorriarekin ibiltzera behartu zuten. Haren alaba bat, berriz, Joanita Ansola Zelaia, Alzolako bainuetxea garbitzera behartu zuten, frankistek hantxe jarri zutelako ospitalea eta koartela (*Markinako Frontea*, EHU).

Beldurrak arinak ditu hankak, eta asko izan ziren, era berean, Frantziara edota Juanito Azkue elgoibartarraren antzera, atlantikoaz beste aldera ihes egin zutenak ere. Azkue abertzalea zen, eta Errepublikaren alde jardun zuen Elgoibarren, gobernu errepublikanoaren ideiak bere egiten zituelako baino gehiago altxamendu militarrekin bat egiten ez zuelako. Abertzale askoren kasua izan zen. Ezkertiarrekiko mesfidati ziren arren, Errepublika gobernu legitimoa zela onartzen zuten, eta komunistekin eta sozialistekin batera jardun zuten gerran.

Baina, gerrako kontuak nola diren. Tropa frankisten beldurrez Argentinara ihes egin aurretik, Azkue goardiak egiten ibili zen Elgoibarko udaletxe atarian, Elgoibarko karlistak, anarkistengandik babesteko. Bitxia da kasua. Gerra giroa hasi zenean, EAJkoek herriko eskuindarrak atxilotu zituzten, udaletxean babesteko. Gaurko begiekin begiratuta ez da erraza ulertzen, baina badu bere logika,



Matxinatuak San Frantzisko kalean aurre-  
ra, gaur egungo Iratxo taberna parean.

Julian Iriondoren arabera (Elgoibar, 1920) :  
“Gure etxean, *Euzkadi* eta *El dia* egunkariekin  
batera, *El Debate* [Madrilgo egunkari katoli-  
koa] ere hartzen genuen egunero. *El Debate*-  
ren bitartez enteratzen ginen gu anarkistek  
zelako astakeriak egiten zituzten Bartzelo-  
nan-eta. Hemen halakorik ez zegoen orduan,  
baina bai tradizionalisten eta ezkertiarren ar-  
teko tirabirak. ‘*Si supieran los curas y frailes,  
la paliza que les iban a dar, subirían al coro  
cantando: ¡Libertad, libertad, libertad!*’”, kan-  
tatzen zuten Eibarren. Gogorak ziren eibar-  
tarrak”. Giro horretan, herritarrek babestea  
erabaki zuten EAJK.

Halaxe, hainbat lagunek goardiak egiten  
zituzten udaletxe atarian, herriko eskuinda-  
rrak babesteko. Anjel Osoro *Mutrikuk*, Felix  
Gastesi pilotariak eta Juanito Azkuek jardun  
zuten zaintza lanetan, besteak beste. Ez zu-  
ten, jakina, gero gertatuko zitzaizaienaren azta-  
renik ere. Erreketek Elgoibarrera sartu eta  
gutzira atxilotu zituzten Osoro eta Gastesi  
(zenbait informazioen arabera, Larruskai-  
nen), eta Ondarretako kartzelan preso sartu  
ostean, ustez kartzelako hormaren kontra fu-  
silatu eta Hernaniko hilerri kanpoan lurperatu  
zituzten faxistek.

## Francoren tropen iritsiera

Irailaren 21ean sartu ziren Francoren tro-  
pak Elgoibarren, 18:00ak aldera, Uparitzaga  
gainetik behera. Azkue baserriko ataritik ikusi  
zituen Julen Zabaletak (Elgoibar, 1921).  
“Jose Maria eta Carlos Ansola anaiekin joana  
nintzen ni hara, eta hantxe geunden atarian,  
koadrila bat. Bagenekien zetozela eta hantxe



egon ginen, zain, begira-begira. Eta halako  
batean bonba bat lehertu zen Amezti gaine-  
an. Sekulako inpresioa egin zidan. Orduantxe  
ikusi genituen tropak, Upaizatik (Uparitzaga)  
behera, banderak hartuta. 18:00ak aldera  
ziren, baina goizeko ordubiak zirela ematen  
zuen”. Eguraldi tristea egiten zuela dio, hala-  
ko egun ilun batean tokatzen dena. Elizako  
kanpaiak dantzarazi zituzten herriko aginta-  
riek, zetorrenaz ohartarazteko. Gerraren gor-  
dinen iristear zegoen.

Egoera horretan, Nazario Artola, Elgoi-  
barko alkate izandakoa, Madalarunz abiatu  
zen izara zuri bat hartuta, bake eskean. “Her-  
ritar batzuek jarraitu zioten atzetik, baina gu  
udaletxe ondoan gelditu ginen, geldi, beldu-  
rrak lotuta”, aitortu du Zabaletak. Beldurra  
berba sarri errepikatu dute BARRENEK elkarriz-  
ketatutako guztiek, baina aipatu beharrik ere  
ez dute, gertaera hartatik 75 urte geroago  
ere izua nabari zaielako aurpegian.

Miren Vallejok eskuak eraman ditu aur-  
pegira, orduan Errosario kaleko bere etxetik  
ikusi zuena berriro ikusi nahi ez balu moduan.  
“Etxean ezkutatu ginen beldurrez, baina hala

ere, balkoira irten ginen ikustera. Han zihoa-  
zen Plazaruntz, besoa altxata eta kantuan.  
Azkeneko patruila Errosario kaleko Ama Bir-  
jinaren pare aldera iritsi zenean, gure aitak  
‘*Gora Euzkadi askatuta*’ oihu egin zuen bal-  
koitik. Zoratu egin zen”. Hurrengo egunetan  
lorik ere ez zutela egin aitortu du, aitaren bila  
noiz etorriko ziren beldurrez. Izan ere, haien  
etxe parean, bi ate gorago, karlista batzuk bi-  
zi ziren. “Baina ez, haiek serioak ziren, eta  
hartu-eman handia zuten gure aitarekin. Or-  
duko hartan libratu ginen” [Gernika bonbar-  
datu ostean beste eskapada bat egin zuen  
Mirenen aitak, bertsio ofizialaren kontra, Ger-  
nika Francoren aldekoek bonbardatu zutela  
esateagatik]. Biharamunean, “dar-dar bate-  
an” egin zuen Mirenek etxetik elizara arteko  
bidea. “Derrigor” joan beharra zeukan. “Ga-  
rai hartan, baserrietan norbait hiltzen zenean,  
argizaiola pizten genuen kalean bizi ginenok  
elizan, haiek ezin izaten zirelako 9:00etako  
mezetara etorri, eta gure amamak agindua  
zien baserriar batzuei geuk piztuko genuela  
eurena”. “Beldurra jota” pasa zen solda-  
duz gainezka zegoen plazatik.



Erreportajerako aurpegia eman dutenak. Miren Vallejo, frontea egon zen lekua zehazten; Julen Zabaleta, Itziar Ajuria eta Julian Iriondo; eta Sabin Osoro, Durangoko bonbardaketan ama galdu zuen elgoibartarra.



Kalegoen plazan (Plaza Handia) jarri zuten komandantzia matxinatuek, Francoren aldekoek.

Ordurako, tropa frankistak Elgoibarren sartu zirenerako, Vallejotarrek topatua zuten etxea Santanderren, hemendik ihes egiteko, baina azkenean herrian gelditzea erabaki zu-

ten, amama ezinduta zutelako etxean.

Ajuriatarrenean ere bazen kezka eta ezinegona. Batzokiko presidentea zen sasoi hartan Itziar Ajuriaren aita, eta Bizkaia aldera ihes egitekotan ere egon zen, baina herrian gelditzea erabaki zuen azkeneko unean, emaztea eta alaba txikia bakarrik ez lagatze-agatik. “Herri hau kristautzera gatoz esanez ibili ei ziren erreketek”. Ajuriak ondo gogoan dauka orduko giroa. Matxinatuek bandoa jo zuten, eta erreketek eta soldaduak etxean hartzera behartu zituzten elgoibartarrak; euren ere egin zieten lekua biri. “Plazatik hasten ziren erreketeeentzako alojamendu bila, eta han ez zegoen ezetzik esaterik. Erreketeeentzako alkandorak ere josi arazi zizkio-ten gure amari”.

1936ko irailaren 23an, lehenengo borro-  
kak izan ziren Aiestia, Urkaregi eta Kalamua inguruan, eta hainbat miliziar eta erreketek hil ziren. Kalamueako posizioetan ehun metroko distantzia zegoen batzuen eta besteen artean, eta odol berekoak parez pare ere izan ziren zenbaitetan. Fusilen bidez egindako erasoak etengabekoak izan ziren fronteak hemen iraun zuen zazpi hilabetean. Erreketeen abesti honek ondo adierazten du 36ko Gerran Kalamuan gertatu zena: “*En el monte Calamúa, hay una fuente que mana, sangre de los requetés, que murieron por España*”. Hildakoak, baina, bi bandoetan izan ziren, eta Joan Joxe Arrizabalagak hala jaso

zuen *Markiña Zarra Kontu Kontari* liburuan: “Gipuzkoarra”k, naparrak, bizkaitarrak, makiña bat mutill eder dagoz Kalamuan ixill-ixillik”.

## Gerrako egunerokoa

Kalean, elgoibartarrak ohituak ziren gerrako bizimodura. Erreketek San Bartolome parrokiako arkupeetan jarri zuten intendentzia, eta herrian atzera eta aurrera ibiltzen ziren; baita soldaduak ere. Mandazainak ere gora eta behera ibiltzen ziren, frontean zeudenei jana eramaten, eta Margarita eta Pelaijo gaztetxoek desfileak ere ohikoak ziren. Julen Zabaletak gogoan dauka Pelaijoen desfilean irten zen aldia. “Joan egin behar nintzela esan zidaten, eta ni, mutiko gaztea, han joan nintzen, falangisten bulegoan emandako alkandora urdina jantzita”, dio. Tentsio giroa bizi zen herrian, eta ordura arte bakean bizi zirenen arteko harremanak ere gaitzotu ziren, bizilagunen arteko salaketak areagotuz. “Mendekuz”, direnak eta bi egin zituzten gerran. Olasope (Olasozpi) baserrikoei gertatutakoa ekarri du gogora Iriondok: “Militar asko hil zituzten eraso batean, eta haren ondotik txibatoen bila hasi ziren. Eta Olasopekoak [hartu zituzten preso, txibato lanetan jardun zutela leporatuta. Epaiketa sumarisimoa egin zieten, eta fusilatu ere egin zituzten bi edo”.

Gerrak iraun zuen denboran, elgoibartarrak beldurrez bizi izan ziren. Herriko gazte

## Gerran hildako elgoibartarrak

### Gernikako bonbardaketa

LADISLAO ARRILLAGA IRUSTA ETA MARINA ABASCAL GABILONDO.

1937ko apirilaren 26an hil ziren, Gernikako bonbardaketan. Borroka lerroetatik urrun zegoen Gernika, baina hiru ordu eta laurdenean euskaldunen kultur tradizioaren hiria zena bonbardatzen jardun zuten alemaniarren Condor Legioko italiarren Aviazione Legionaria-ko hegazkinek. 16:00etatik ilundu bitartean, Gernika eta inguruetan hegaldaka ibili ziren Francoren aliatuak, Gernikatik babestera ihesi zihozten zibilak metrailatuz. Bonbardaketa hartan hil ziren Ladislao Arrillaga eta Marina Abascal senar-emaztegaia eta haien txakurra: Kety.

Gernikan azoka eguna zuten egun hartan, eta emaztegaia bisitatzera joan zen Ladislao Gernikara, haren iloba Flora Arrillagak BARRENI azaldutakoaren arabera: “Gauza garbirik ez dakit. Dakidan apurra da osaba eta Marina elkari besarkatuta hil zirela arbolape batean, Gaute-giz-Arteagan. Azoka eguna zen, egun handia, eta Marina ikustera joan zen gure osaba hara”. Ladislao eta Marinaren gorpuak Elgoibarko hilerrian lurperatu zituzten gero.

### Durangoko bonbardaketan hildakoak:

ANGEL SUAREZ ETXEBARRIA ETA TERESA UNZUETA UNZUETA.

George Steer kazetari estatubatuarak *The Times* egunkarian argitaratutako kronikak eta, batez ere, Pablo Picassoren *Guernica* koadroak mundu osoan ezagun egin zuten Gernikako bonbardaketa, baina aurrez ere txikizio handia eragin zuten Francoren eskuadroi leialek. 1937ko udaberrian hasi zuten frankistek Bizkaiko erasoaldia, eta martxoaren 31n egin zuten hirien kontrako lehenengo aire erasoetako bat. Egun horretan Durango eta Elorrio bonbardatu zituzten. 300dik gora lagun hil ziren, tartean bi elgoibartar: Angel Suarez Etxebarria eta Teresa Unzueta Unzueta.

Durangoko elizan harrapatu zuen bonbardaketak Teresa Unzueta, meza nagusian, eta aitxixaren etxean zeudela jakin zuen Sabin Osorok euren ama hil zutela. “Gure aita Frantziara alde eginda zegoen, eta ama beste aldera, gorrien edo gudarien partera, pasatzera behartu zuten nazionalak, otsailaren 11n, Lurdesko Ama Birjinaren egunean [Senarra beste bandoan zutene emakume batzuei alde egiteko baimena eman zieten nazionalak, eta asko Bizkaia-  
eraman zituzten trenez].



Soarteko etxea baino beherago jarri zuten artilleriako bateria. Gaurko Santa klara kale hasieran.

asko zeuden kanpora ihes eginda edo frontean borrokatzen, eta Pireinaca irriaren bidez izaten zuten askok gerraren berri. Pireinaca entzutea galarazita zegoen, jakina, eta elgoibartarrak Goiko Errotan batzen ziren, isilean, Parisera alde egindako Olaso aitak [Alberto Onaindia abadeak] kontaktzen zituenak entzutera. Julian Iriondo zen han biltzen zenetako bat. "Errotak ateratzen zuen burrunbarekin disimulatzen genuen irrati zarata. Egurra ematen zion Aita Olosok Francori".

Iriondok zuzeneko tratua izan zuen Olaso aitaren anaia Zelestinorekin. Izan ere, Zelestino Onaindia abadea eta garai hartan Etxebarriako parrokoa zen Frantzisko Etxebarria euren etxean izan zituzten apopilo, harrik eta urriaren 21ean militarrek etorri, biak preso hartu eta Ondarretako kartzerala eraman zituzten arte. Hantxe fusilatu zituzten gero, "kanposatu barruan, lur santuan, lurperatzea merezi ez zutela-eta". Begiak ere bete zaizkio Iriondori ordukoa gogoratzearekin batera. Estimatu handitan zuen Julianek Zelestino. "Corona idazteko makina txiki bat ekarri zidan behin, eta *El principio del génesis explicado por el vascuence* liburuak kopia-tzen lagundu behar niola esan zidan. Azkenean, baina, militarrek sartu zirenean erre egin genuen. Liburu eder ugari erre genituen. Sekulako pena eman zidan. 'Liburuak erre egin behar ditugu, arriskutsuegia da hemen



## Frontetik bonbak eta bala galduak iristen ziren, eta airez ere eraso zioten Elgoibarri

gordetzea-eta' esan zidan". San Frantzisko kaleko iturri ondoan zegoen gasolindegian ikusi zituen azkenekoz Miren Vallejok, goardia zibilen autoan, atxilotuta. Fusilatzeraz ramatzaten.

Frontea egonkortu zenean, 1936ko urriaren hasiera aldera, faxisten hegazkinak sarriago agertzen hasi ziren, eta gerra

egiteko modu berri bat hasi zuten matxinatuek, atzeguardia ahultze aldera: zibilen kontrako bonbardaketak. "Kalamua alde-tik agertzen zen noizean behin *El Abuelo* esaten genion hegazkin zaharra", gogoratu du Vallejok. "Gerra hegazkinek binan botatzen zituzten bonbak, eta horietako batek jota hil zen Puri [Iturzaeta] bere ortuan", gehitu du Zabaletak. Bonbak eta bala galduak ere sarri iristen ziren kalera-ino. Karakaten nazionalak zeuden, eta Galdaramiñon, gorriak, sozialistak. Elkarri kanoikadaka ibiltzen ziren. Kalamuatik ere botatzen zituzten bonbak. Hain zuzen ere, eta bildutako lekukotzen arabera, Kalamuatik botatako kanoikadek jota hil ziren hiru elgoibartar, Karnabal domekan, 1937ko otsailaren 7an: Martzelino Elortza *Butron*, Mikaela Lete eta *Extremeña* esaten zioten emakume bat.

Eta Durangora joan zen gure ama, han senideren bat zuen-eta. Egunero joaten zen elizara, eta eliza barruan hil zuten", gogoratu du.

14 urte zituen Sabinekin garai hartan. Amari jarraitzea ere pentsatu zuen otsailaren 11 hartan, baina soldaduek ez zioten laga: "Maleta bat hartu eta trenbidean aurrera abiatu nintzen emakume talde hurra zain-tzen zihoazen goardia zibilen atzetik. Andikano baino aurrerago soldaduak ikusi nituen, baina nik isilik aurrera. Halako batean, 'alto' oihu egin zidaten, baina nik jaramonik ez. Berritoki ere, 'alto' haiek, eta nik aurrera, baina hirugarrenoz atentzioa deitu aurretik burua bueltatu nuen, bestela bertan garbituko nindutela pentsatuta, eta han nituen fusilarekin apuntatzen. Esan zidaten mutil koxkor bat nintzelako ez nindutela kartzelara bidaltzen". Durangon dago hilobiratuta Sabinen ama.

### Elgoibarren hildakoak:

#### PURIFICACION ITURZAETA ITURZAETA.

Aire erasoan hildakoa: Purificacion Iturzaeta Iturzaeta *Mujikanekoa*. Etxe aurrean harrapatu zuen bonbak, ortuan. Mujikaneko hormaren beste aldean bi soldadu ere bazeuden, eta haietako bat ere hil zen ai-

re erasoan. Julen Zabaletak ondo gogoan dauka Iturzaeta hil zen eguneko erasoak: "Binaka botatzen zituzten bonbak hegazkinetik. Bonba txiki batzuk ziren, baina jausten ziren lekuan belarra ere erre egiten zuten. Zulo haiek denak ikusi nituen nik".

#### MARTZELINO ELORZA ARRIZABALAGA 'BUTRON', MIKAELA LETE ZENDOIA ETA 'EXTREMEÑA' EZIZENEN BAT.

Martzelino Elorza *Butron* *hojalateroa* eta Mikaela Lete Zendoia San Frantzisko kaleko 14. zenbakian bizi ziren, eta frontetik, Kalamua alde-tik, botatako kanoikada batek jota hil ziren biak. "San Frantzisko kaleko zerkan, erreka aldera, korta moduko bat zuten, eta bonbetatik ihesi hara joaten ziren babestera. Hantxe harrapatu zituen bete-betean bonba batek", zehaztu du Zabaletak. *Extremeña* ezizeneko emakume bat ere hil zen Elgoibarren, kanoikada batek jota, baina galdekatutako inork ez du bere izena gogoratzen.

Herrian bertan hildakoei frontean hildakoak eta fusilatutakoak gehitu behar zaizkie. Elgoibar 1936 taldeak jaso ditu haien izenak ([www.elgoibar1936.blogspot.com](http://www.elgoibar1936.blogspot.com))

Elizako kanpaiak su-kanpaiak jotzen zituzten erasoak hasten zirenean, eta elgoibartarrak "ahal zen lekuan" babesten ziren. Elizako kanpandorre azpian, erreka bazterrean, Soarteneko babeslekuan...

## Udaberri beltza

1937ko udaberria beltza izan zen. Hirien kontrako bombardaketak ugaritu egin zituzten. Martxoaren 31n Durango bombardatu zuten, eta atzetik etorri ziren, besteak beste, Eibar eta Gernikaren kontrako aire erasoak. Gertutik bizi izan zituzten bombardaketok elgoibartarrek ere. Sabin Osorok, esaterako, ama galdu zuen Durangoko bombardaketan, eta bombardaketa berean hil zen Angel Sua-

rez ere. Gernikakoan beste bi elgoibartar hil ziren: Ladislao Arrillaga eta Marina Abascal. Bombardaketa izan eta lau egunera, aitarekin joan zen Gernikara Julen Zabaleta. Telesforo, Julenen aita, Antonio Arrillaga medikuaren txofer ofiziala zen, eta Gernikan zeukan autoa, matxuratuta, Unzeta arma fabrikari. Unzeta bera etorri zitzaion Eibarrera bila. "Gernika ketan zegoen oraindik, eta alemaniarrek zebiltzan kalean, kapela handiak jantzita. Bidean, kunetetan eta errepede bazterretan hildako asko ikusi genituen, eta ez genuen zualatu gabeko baseririk ikusi".

Gernikaren aurretik, Eibar ere erre zuten Francoren aliatuek, baina ordurako herria hustu xamartua zen, eta zorionez biktima gu-

txiago eragin zituen. Arriaga auzoko Irabane-ta baserrian harrapatu zuen Eibarko bombardaketak Julian Iriondo, eta mendi gain bate-ra igota ikusi zuen Eibar ketan. Ikuskizun bera ikusi zuten Julen Zabaletak eta Jesus Arregi zenak ere, lehenengo Agarre-Txikitik, eta bertatik bertara gero, bombardaketa izan eta ordu gutxira. "Bazter guztiak sutan, paretak jausten... ikaragarria zen Eibarkoa. Eibarrren, Jesusen osaba baten etxean geundela, bonba batzuk ere bota zituzten Untzagan, eta erreketaren batzuk edo hil zen", dio.

Atzo gertatu balitz bezala gogoratzen dituzte orain 75 urteko kontuak. Eta ez daude ahazteko, gainera. Gerran hildakoei egin da-kiekeen omenaldirik onena horixe delako.

## FRONTEAN HILDAKO ELGOIBARTARRAK

Errepublikaren alde frontean hildako elgoibartarrak.

- **Aniceto Albisu Etxabe.** 1937ko martxoaren 31n hil zen, Albetian. Ariztimuño Batailoia.
- **Tomas Anzola Agirre.** 1937ko martxoaren 31n hil zen, Otxandion. Gatzaran Matxinada batailoia.
- **Zakarias Aspiazu Krutzelegi.** 1937ko apirilaren 5ean hil zen, Barazarren.
- **Luis Astigarraga Arana.** 1936ko irailaren 16an hil zen, Eibarren. Amuategi batailoia.
- **Jose Txurrukas Zabaleta.** 1937ko otsailaren 23an hil zen, Asturiasen. Amaiur batailoia.
- **Martin Etxebarri Txasko.** 1936ko abuztuaren 2an hil zen, Tolosan. Errusia batailoirekin.
- **Asensio Gabilondo Agirre.** 1937ko apirilaren 30ean, Zugastietan. Amuategi batailoia.
- **Julio Gabilondo Agirre.** 1936ko azaroaren 8an hil zen, Markinako Ordena Publikoa batailoia.
- **Lazaro Gabilondo Olañeta.** 1936ko urriaren 26an hil zen, Markinan. Markinako Ordena Publikoa batailoia.
- **Hipólito Sánchez Etxaburu.** 1937ko maiatzaren 10ean hil zen, Solluben. Otxandio Batailoia.
- **Angel Suarez Etxebarria.** 1937ko martxoaren 10ean hil zen, Otxandion.
- **Manuel Larrea Alberdi.** 1936ko abenduaren 2an hil zen, Eibarren. Amuategi batailoia.
- **Andres Lejardi Lisundi.** 1937ko apirilaren 25ean hil zen, Basurtoko ospitalean. Amuategi batailoia.

## FUSILATUTAKO ELGOIBARTARRAK

Elgoibar 1936 taldekoei hartutako zerrenda, elkarrizketatuek emandako datuak gehituta. (Zerrenda guztiz osatugabea).

- **Tomas Dueñas de Pablo.** Logroñon jaio, eta 1937ko apirilaren 19an fusilatu zuten Elgoibarren.
- **Eduardo Durillo Moreno.** Salamancan jaio zen, eta 1937ko apirilaren 21ean fusilatu zuten, Kalamuan, 23 urte zituela.
- **Zelestino Onandia Zuloaga.** Markinan jaio zen, eta 1936ko urriaren 28an fusilatu zuten Ondarretan.
- **Pedro Julian Agirre Gallastegi.** Elgoibarren jaio zen, eta 1936ko urriaren 1ean fusilatu zuten Meagasen.
- **Justo Agirre.** Elgoibarren jaioa.
- **Jose Alberdi Arrieta.** Elgoibarren jaio zen, eta 1936ko abenduaren 26an fusilatu zuten Maltzagan.
- **Jose Alberdi Etxaniz.** Azkoitian jaio zen, eta 1936ko abenduaren 26an fusilatu zuten Maltzagan.
- **Marcos Aldabe.** 1937ko apirilaren 19an fusilatu zuten Elgoibarren, 28 urterekin.
- **Pedro Arrieta Larrañaga.** Elgoibarren jaio zen, eta Deban fusilatu zuten, 27 urte zituela.
- **Josefa Arrillaga Arizabalaga.** Elgoibarren jaio zen, eta 1937ko martxoaren 30ean fusilatu zuten Soraluzen, 48 urterekin.
- **Angel Arteaga Amurrio.** Biasterin jaio zen, eta 1938ko urtarilaren 22an fusilatu zuten Elgoibarren, 64 urterekin.
- **Emilio Etxarri Ornosagasti.** Elgoibarren jaio zen, eta 1939ko apirilaren 17an fusilatu zuten Elgoibarren, 53 urterekin.
- **X. Izagirre.** Elgoibarren jaio eta Mendaron bizi zen (orduan Elgoibar). Upai baserrian fusilatu zuten.
- **Felix Gastesi.** Tolosan jaio zen, eta Elgoibarren fusilatu zuten ustez.
- **Joakin Giner Oliver.** Alacanten jaio zen, eta 1937ko apirilaren 19an fusilatu zuten Elgoibarren.
- **Esteban Lopez.** Badajozen jaio zen, eta 1937ko apirilaren 21ean fusilatu zuten.
- **Angel Osoro "Mutriku".** Mutrikun jaio zen, eta bere ilobaren esanetan Donostian fusilatu zuten, Ondarretako kartzelako hormaren kontra. 42 urte zituen.
- **Alejandro Retolaza Larreategi.** Elgoibarren jaio zen, eta 1938ko martxoaren 12an fusilatu zuten Bilbon, 42 urterekin.
- **Pedro Telleria Askasibar.** Elgetan jaio zen, eta 1937ko apirilaren 25ean fusilatu zuten, 54 urterekin.
- **Jose Villasua.** A Coruñan jaio zen, eta 1937ko apirilaren 19an fusilatu zuten.
- **Mariano Arillaga.** Mendaron bizi zen (orduko Elgoibar).

Matxinatuen buruak, atsedena hartzen, Plaza Handian.







2012ko ezkontza gehigarri honetan zure ezkontza eguna prestatzeko baliagarri izango zaizkizun aholku eta ideiak aurkituko dituzu.

# ezkontza gehigarria

**ELENA**  
**ileapaindegia**  
 Depilazio Elektrikoa  
 San Frantzisko 49 -1      Tel: 943 741 189

**Imprenta Arrillaga**  
 Inprimaketa: Offset      Ezkontza gonbidapenak  
 Digitala      Hesta originalak  
 Gesta txartelak      Fotokopiak      Kalorlan  
 Karrika - etiketak      e.a.      Txanurreak  
 Trenbide Kalea, 13 - behea  
 Tel.: 943 74 01 87  
 e-posta: arrillagasi@euskalnet.net

**HAIR'S**  
 ILEAPAINDEGIA  
 San Bartolome, 6 behea  
 Tel.: 943 531 279  
 ASTEARTEETAN JUBILATUEN EGUNA:  
 - Orraztu 8 €  
 - Garbitu, moztu eta orraztu 16 €

**Imprenta Arrillaga**  
 ELGOIBAR  
 San Bartolome, 13-25 - Tel. 943 74 01 87

**Jasone**  
 Zerbitzu Grafikoak  
 Ezkontza gonbidapenak  
 Sartu, aukeratu eta eraman itzazu!!

San Bartolome, 15  
 20670 ELGOIBAR - Gipuzkoa  
 Tel./Faxa: 943 53 17 45  
 jasone@jasoneg.com  
 www.jasoneg.com

# Ezkontza egunean apain-apain eta ikusgarri egoteko urrezko arauak

**D**isdiratsu eta eder. Ezkongabe bat ondoen definitu beharko luketen bi adjektiboak dituzue. Zure egun handian dotore eta eder egoteko, hauxe duzu jarraitu beharreko lehenengo araua: gutxirekin hobeto.

**1.** Makillajea ondo aukeratu: ezinbestekoa da makillajea ondo aukeratzea, eta neurrian ematea. Gehiegikeriak ez dira lagun onak, eta ez da komeni probatzen hastea. Probak laga hurrengo baterako, eta aukera ezazu ondoen datorkizun kolore-tonua.

**2.** Zaindu azala. Egin ezazu peeling bat, eta esfoliatu eta hidratatu ezazu



azala. Hasi zaitetz garaiz, baina (nahiz eta hau egunero egin beharreko kontua izan). Azkeneko egunerako lagatzen baduzu, ez duzu onurarik igarriko.

**3.** Egin argi eta bizitu begitartea. Horretarako, erabili partikula irisatuak dituzten

masailetako gorriak eta begi-itzalak. Ederrago egingo zaituzte.

**4.** Beltzarana egoteak ederrago egiten gaitu. Eguzkitan egoteko aukerarik ez dutenek edota kolorea nekez hartzen dutenek ere badute, hala ere, eder egoteko aukerarik. Tonalizatzaile satinatuak erabiltzea aholkatzen dute adituek halakotan.

**5.** Ezpainak nabarmendu nahi badituzu fuksia kolorea eta kolore koralak daude gaur egun moda-modan. Izan kolore matean edo distiratsuan. Baina gogoratu begiek ahalik eta naturalen egon behar dutela, eta ez dela komeni begi-tar-

**AZALEA** Edergintza  
M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua  
Trenbide Kalea, 3 zkl.a. behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 740 310

**TRATAMENDU BERRIAK!!**  
Konpromisorik gabeko informazioa  
GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA  
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizantzia) - Mikropigmentazioa

**AGURTZANE** c.b.  
ileapaindegia

Santa Ana, 18  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 741 864

**Kala** LORADENDA  
San Frantzisko, 24  
Tel. 943 744 516

ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

**Idama**

Apirileko irabazlea:  
**ISABEL TENA**


Maiatzeko saria:  
**PLANTXAK**

Zure ezkontza eguna berezi bihurtuko dugu!!

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26



tea larregi nabarmentzea. Kolore leunak erabili horretarako (arrosa edo melokotoi koloreak, esate baterako). Begietako itzalak nabarmentzeko urre kolorea erabili dezakezu, eta ez ahaztu betile-maskara erabili behar denean waterproffa erabili behar dela, ezkontzetan une hunkigarri



asko izaten direlako eta malkoek gure makillajea honda dezaketelako. Helena Rubinsteinen Blanc Feline beti-maskara oso egokia izan daiteke.

**6.** Begiak nabarmendu nahi badituzu, tonu metalizatu argien alde egin behar-ko zenuke. Urdinak, berdeak, turkesa koloreak edo urre kolorea, adibidez. Hala-kotan, egokia izan daiteke ezpainak arrosa kolorez margotzea.

**7.** Konbinatu koloreak. Oso kontuan izan behar dugu gure makillajea bat etorri behar dela gure orrazkerarekin, lore-sor-tarekin eta soinekoari sartu diogun kolore apurrarekin, sartu badiogu behinik



behin. Kolore hauetara oso ohituak egon ez arren, egokiak gerta daitezke ezkon-tza egun baterako: laranja, fuchsia, urre kolorea, urdina eta berdea. Norberari ondoen datorkion kolorea asmatzean dago gakoa. Baina egin kolorearen alde, ez zara damutuko eta.

**ARAMBURU**  
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26  
Tel./faxa: 943 74 25 35

**Kopilan**  
comunicación gráfica

*Ezkontzak, Jaioberriak eta bestelakoak!*

Aukeratu gure katalogoen artean zure gonbidapena, pertsonalizatu ditzakezu edo zure gustuko gonbidapenak egin!

Nahi izanez gero opariak eta osagarriak ere eskuragarri daude!

Eta ezkondu eta gero zure erretratuak formatu handietan inprima ditzakezu!

Kopilan, Ibaizarte Industrialdea 5 • 943 74 35 51 • [kopilan@kopilan.com](mailto:kopilan@kopilan.com)

# Zaharkituta geratu diren tradizioak



**D**enboraren poderioz ezkontzako hainbat tradizio zaharkituta geratu dira eta ohitura berriek hartu dute haien lekua. Badira oraindik tradizioari eutsi nahi izaten dioten emaztegai klasikoak, baina gehienek denbora berrietara egokitzen dute ezkontza eguna, eta garaian garaiko ohitura berriak dira nagusi egungo ezkontzetan. Jarraian aipatuko ditugu indarra galdu duten tradizioak:

- Emaztegaia aitaren besotik iristea emozioz beteriko unea izaten da, baina zer egin hori posible ez den kasue-

tan? Ez dago arazorik! Gertuko senideren bat, lagunen bat, ama edota senargaiari eskua emanda iristea ere posible da.

- Ezkonberriei arroza botatzea indarrean egon zen garaian, baina gaur egun lekuz kanpo dago. Loreen petaloak, xaboi burbuilak edota tximeletak botatzea dago modan.
- Andregaiaren modari dagokionean, koloretako zapaten alde egin behar da gaur egun, eta emaztegaiai moderno itxura ematen dioten diseinuak aukeratu behar dira.

**NAVA**  
IN PRIMATEGIA

Santa Ana, 44 - ☎ 208  
Telf. eta Faxa: 943 744 451  
E-mail: nava@euskalnet.net  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

*Etorri  
eta  
aukeratu.*

**AISIA DEBA HOTELA**  
debarestaurante@aisiahoteles.com  
Tel.: 943 608 052

2012rako eskaintza bereziak

TU GUKU  
Ezkontza eta ospakizunak  
gurean zuretzat prestatu ditugu.

**ZURE AMETSA EGI BIHURTZEN DUGU,  
TOKI PAREGABEAN.  
JAUNARTZE ETA BATAIO MENUAK,  
ZURE GUSTURA EGOKITZEN DITUGU!**



Tel. 943 202 727 Faxa. 943 208 991 Arrate auzoa, z/g -EIBAR-



*Krabelin*

HOTELA  
JATETXEA



E-maila: [conecta@hotelkrabelin.com](mailto:conecta@hotelkrabelin.com)

[www.hotelkrabelin.com](http://www.hotelkrabelin.com)

**EZKON  
BERRIENTZAKO  
OPARIA  
SUITTE BATEAN  
BI GAU  
JAKUZZIA BARNE!**

**ARRATEKO  
SANTUTEGI  
AURREAN  
GAUDE!**

**ARGAZKI  
ERREPORTAJEA  
EGITEKO  
TXOKO EZIN  
HOBEAZ  
INGURATURIK!**





**Judith**  
EDERGINTZA

Erosario Kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 467742118

**noa**  
943747421

Ileapaindegia-estetika

Olivia Martinez  
Miriam friando

San Bartolome33,bajo.  
**ELGOIBAR**



ILEAPAINDEGIA-EDERGINTZA

**DONNA**



- Manikura/Pedikura
- Masajeak
- Aurpegiko larruazal garbiketa
- Makillajea
- Keratinazko leuntzaila
- Laser diadua
- Depilazioa argizari beroa eta epelarekin
- Depilazio elektriko
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Dutzadun solariuma

Pedra Muguruza etorbidea, 13 - Elgoibar - Tel.: 943 744 386

**Maria Urizar**

- Ileapaindegia  
- Solariuma

Erosario kalea, 9 - 1 ezk.  
Tel.: 943 744 449  
Elgoibar



**estetikaalire**

Upaiz zaharra, 1 behea . Tel.: 943 531 636  
Elgoibar

- \* Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- \* Ongizate tratamenduak
- \* Masajeak
- \* Fotodepilazioa
- \* Mikropigmentazioa
- \* Manikura
- \* Solariuma
- \* ...



**KANTABRIA**  
Jatetxea




EZKONTZAK | BATAIOAK | JAUNARTZEAK

Arrate gaina, 4  
279 posta-kutxa  
20600 EIBAR  
Tel.: 943 121 262

[www.kantabriajatetxea.com](http://www.kantabriajatetxea.com)



RESTAURANTE KANTABRIA  
KANTABRIA JATETXEA





MONUMENTU ARTISTIKOA



# LASA JATETXEA

250 LAGUNENDAKO  
JANGELA



El Diario Vasco  
"Más gastronomía"  
Sarlaren irabazlea  
2009an,  
BANKETEETAKO  
GIPUZKOAKO  
JATETXE  
ONENA moduan.



*ERA GUZTIETAKO BANKETEA  
ospatzeko toki bikain batean*

Ozaeta Jauregia  
Tel. 943 76 10 55  
Faxa: 943 76 20 29  
[www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)  
BERGARA





## Auzitegi Gorenak 'Bateragune auzian' emandako epai zigortzailea salatzeako manifestaziora deitu dute biharko

Auzitegi Nazionalak Otegiri jarritako zigorra berretsi du Gorenak, urte kopurua murriztu arren

**E**spainiako Auzitegi Gorenak frogatutzat eman du Auzitegi Nazionalak *Bateragune auzian* auzipetutakoak zigortzeko erabili zuen tesia. Hala ere, murriztu egin die Auzitegi Nazionalak auzipetuei jarri zizkien zigorrak. Arnaldo Otegi eta Rafa Diez hamarretik sei urte eta erdira jaitsi die zigorra, eta Miren Zabaleta, Sonia Jacinto eta Arkaitz Rodríguez zortzitik seira. Epaiaren "bidegabekia" salatzeako eta auzipetuek libre behar dutela aldarrikatzeko, Arnaldoren aldeko herri ekimenak manifestazioa antolatu du biharko. 17:00etan hasiko da Kalegoen plazan (Plaza Handia). Astelehenerako, berriz, elkarretaratzera deitu dute, 19:00etan, Kalegoen Plazan.

### Gorenaren epaia

Eguaztenean eman zuen epaiaren berri Gorenak, eta epaian frogatutzat eman zuen auzipetuak ETAREN aginduetara aritu zirela euren lan politikoa. Gorenaren arabera, auzipetuak ez ziren ETAKO zuzendaritzako kide, baina bai erakunde armatukoak. Horregatik murriztu zien kartzela zigorra. Hala ere, Auzitegi Nazionalaren tesi nagusiarekin



2009ko urriaren 13an atxilotu zuen Arnaldo Otegi Espainiako Poliziak.

bat egin zuen, eta ezker abertzaleak bide demokratikoen alde egiteko egin zuten lana ETAREN aginduak betetz egin zutela berretsi zuen. Gorenaren epaiak bi boto partikular izan zituen: bat, absolutzioaren aldekoa, eta, bestea, epaiketa errepikatzearen aldekoa.

2009ko urriaren 13an izan zen *Bateragune auziakoen* kontrako polizia operazioa. Baltasar Garzon Auzitegi Nazionaleko epai-lezenak agindutako sarekada hartan, hamar lagun atxilotu zituen Espainiako Poliziak, "ETAK aginduta" alderdi eta eragile

abertzaleen arteko elkarlanerako ekimene-tan aritzea leporatuta. Operazio hartan atxilotutako Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodríguez eta Miren Zabaleta kartzelara bidali zituen epaileak berehala. Rufi Etxeberria eta Ainara Oiz, berriz, baldintzarik gabe libre laga zituen, eta Txelui Morenori, Amaia Esnali eta Mañel Serrari hamarna mila euroko bermea jarri zien. Sei hilabete geroago Rafa Diez baldintzapean aske utzi zuten, 30.000 euroko bermea ordainarazita. Politikan aritzeko baldintzak ere ezarri zizkioten.

# Elgoibarko Izarra kultur elkarteko

## Bazkideen Batzar Orokorra

Eguna: maiatzak 16, eguaztena

Ordua: 19:00

Tokia: Kultur Etxeko hitzaldi-gela





**ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA



## Erretratu zaharra



1957

Aste honetako erretratu zaharra Ignacio Mari Andonegiren argazki bildumakoa da. 1957. urtean Plaza Txikiko eskolan ateratako argazkia da, eta Don Claudio Monreal irakaslearen gelako umeak azaltzen dira bertan. Ikus ditzagun zeintzuk diren mutiko horiek. **Goiko ilaran:** Juan Luis Arrieta, Guillermo Barrenetxea, Jose Agustín Olasolo, Sabin Txurruka, Manolo Ibarluzea, Juan Ansola, Juan Mari Andonegi, Julian Iriondo, Luis Altuna, Antonio Jesus Bores, Jose Azpiazu, Jose Mari Aranberri, Jose Luis Rezola, Angel Mari Cuesta, Alberto Andonegi, Angel Mendizabal, **Erdian:** Juan Carlos Palacios, Sebastian Etxaniz, Javier Mujika, Ignacio Mugertza, Jose Mari Igartua, Miguel Gorostiza, Jesus Mari Izagirre, Fernando Alonso, Victor Altuna, Francisco Urbieta, Jose Luis Lizarralde. **Behean:** Javier Cendoya, Julio Mugertza, Vicente Saiz, Jose Mari Larrañaga, Jose Mari Perez, Don Claudio Monreal, Antonio Martin Molins, Francisco Rodriguez, Jose Antonio Moreno, Jose Altuna, Jose Otaegi eta Juan Mari Artetxe.

ESKAINITZA BEREZIA

### 12 HILABETE INTERESIK GABE

\* Kontsultatu baldintzak dendan



**539€**

**SIEMENS garbigailua**  
WM12Q420EE  
Kontrol elektronikoa  
Aurrez grabatutako abiaraztea  
ECOPERFECT, WATERPERFECT.



**279€**

**LCD 32 LG**  
32LK 330  
TDT definizio handia eta TDT-C  
1368 x 768 P erresoluzioa  
Infinite 3D surround



**69€**

**FAGOR kafe-makina**  
CCA15G  
Thermo block sistema  
Deskonektzio automatikoa

2012/05/01ra arte balio du, akats tipografikoa egon ezan edo produktuen amaiera arte

MILAR

BIRE

Ubitarte 11  
943 741 487  
bire@milars.es



I. URTEURRENA

## GURUTZ GASTEAIN RODRIGUEZ

2011ko maiatzaren 8an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzak 12, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



ESKERTZA

## ITZIAR LOIOLA ARRILLAGA

2012ko maiatzaren 7an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## ITZIAR LOIOLA ARRILLAGA

*Laster arte ezpainetan  
utzi gaituzu penetan  
orain gure ametsetan  
bizirik zaude benetan  
zeruko izarretan  
zure irribarrea daramagu  
gure bihotzetan*

2012ko maiatzaren 7an hil zen  
Elgoibarren

Jonen koadrilako lagunak



ESKERTZA

## ITZIAR LOIOLA ARRILLAGA

*Nola agurtu gure laguna  
hamar lerro eskaxetan  
ezin sinistu, ezin ulertu  
hor gabiltza burruketan  
emazte, ama, alaba ona  
neska alaia benetan  
zure taupadak entzuten dira  
koadrilako bihotzetan  
beti aurkituko dugu elkar  
Anbotoko zelaietan*

2012ko maiatzaren 7an hil zen  
Elgoibarren

Koadrilako lagunak



# Lehen Nazional mailara igotzeko beste aukera bat izango du Alcorta eskubaloit taldeak

Elgoibarren jokatu dute kanporaketa, gaur zortzi hasita

Lehen Nazional mailara igotzeko kanporaketa jokatu zuen Alcortak joan den asteburuan, eta bigarren lekuan sailkatu zen talde elgoibartarra. Hirutik bi partida irabazi zituen Alcortak, eta galdu zuen norgehiagoka gol bakarreko aldeaz galdu zuen, Kataluniako La Garriga taldearen kontra. Hain zuzen ere, La Garrigak lortu zuen lehen postua hiru partidak irabazita, eta bera izango da zuzenean Lehen Nazional mailara igoko dena. Alcortak, hala ere, mailaz igotzeko beste aukera bat izango du datorren asteburuan, eta kanporaketa hori ere Elgoibarren jokatu du. Hiru taldeko bi multzotan jokatu dute kanporaketa, eta multzo bakoitzeko irabazlea igoko da mailaz.

Olaizaga kiroldegia jendez gainezka



egon zen asteburu osoan, eta zaleen berotasuna jaso zuen uneoro Alcortak.

## Tecnifuellek ez du igotzea lortu

Apirileko azken asteburuan jokatu zuen Tecnifuellek igoera faseko lehen kanporaketa, eta Elgoibarko neskak laugarren postuan sailkatu ziren. Bi

partida galdu eta bakarra irabazi zuen Tecnifuellek, eta igoera faseko kanpo geratu ziren. Kataluniako Granollers taldeak irabazi zuen Elgoibarko kanporaketa.

Neska zein mutilen faseetako argazkiak eta bideoak [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) atarian ikus daitezke.

## Julia Agirrek irabazi du Gipuzkoako Karting kopa txapelketa



Julia Agirre pilotu mendaroarrak irabazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Karting kopa txapelketa. Olabariako zirkuitoan jokatu zuten txapelketa, bi asteburutan. 70 gidarik hartu zuten parte sailkapen fasean, eta 49:46 denborarekin sailkatu zen mendaroar gaztea finalerako, Iñaki Apalantzaren atzetik. Finalean irteera oso ona egin zuen Agirrek, eta lasterketaren buruan jarri zen hasieratik. Zortzi segundoko aldea atera zion helmugan mendaroarrak bigarren sailkatuari, eta buelta azkarrena ere berak egin zuen, 53:36 denborarekin. Honenbestez, bigarren aldiz lortu du txapelketa honetan garaipena Mendaroko pilotuak, 2010ean ere bera izan baitzen azkarrena.

## CD Elgoibarren zozketa

Athletic eta Bartzelona taldeen arteko Errege Kopako finalerako bi sarrera zozketatu ditu CD Elgoibarrek, eta 505 izan da zenbaki saritua (Ordezkoak, 1.439 eta 491). Partidarako sarrerez gain, 400 euro jasoko ditu irabazleak. Bigarren saria Landa jatetxean bi laguntzako afari bat izan da, eta 1.018 izan da zenbaki saritua (Ordezkoak, 2.643 eta 3.944). Azkenik, 300 euroko saria jasoko du 4.102 zenbakiaren jabeak (Ordezkoak, 2.690 eta 712).

## Futbol 7 txapelketa

Elgoibarko eta Eibarko kirol patronatuek Debabarreneko Futbol 7 txapelketa antolatu dute, 1995ean edo lehenago jaiotakoentzako. Talde bakoitzak 72,5 euro ordaindu beharko ditu, eta izena emateko azken eguna maiatzaren 25a izango da. Hogei taldeko muga jarri dute eta izenemate ordena errespetatuko da. Informazio bilera Ipuruako kiroldegian egingo dute, hilaren 25ean, 20:30ean.

## Mendi itzuliak, itzulitxoak eta finalista egunak bat egingo dute bihar, Morkaiko Egunean


17:00etan familia erretratua aterako dute, Kalegoen plazan

**M**orkaiko mendizale elkarteak Morkaiko Eguna antolatu du biharko, eta Elgoibarko mendi itzuliak, itzulitxoak eta finalista egunak bat egingo dute. Mendi itzulia helduentzako prestatu dute. 6:00etan hasiko da Kalegoen plazan, eta 38 kilometroko ibilbidea egin beharko dute partaideek. Haur eta gaztetxoentzako, berriz, mendi itzulitxoak prestatu dute, eta nahi duenak, Kalamuara igotzeko aukera ere izango du. Itzulitxoak egin nahi dutenak 9:00etan batuko dira Kalegoen plazan. Finalista Eguneko dominak, bestalde, 13:30ean banatuko dituzte. Segidan, bazkaria egingo dute, eta eguna amaitzeko, familia erretratua aterako dute 17:00etan, partaide eta antolatzaile guztiek.

Oraindik izena eman ez dutenek bihar ere izango dute aukera, probak hasi baino lehen, Kalegoen plazan bertan. 18 urtetik beherako bazkideek zazpi euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, hamar euro. 18 urtetik gorako bazkideentzako prezioa, aldiz, 13 eurokoa da, eta gainerakoentzat 17 eurokoa.

### Hurrengo irteerak

Eguraldi iragarpen txarraren ondorioz, Anbotoko Mariren koba-



rako irteera maiatzaren 19ra atzeratu dute antolatzaileek. Maiatzaren 26an, bestalde, Beriainera mendi ibilaldia eta Olazagutiara mendi bizikleta irteera egingo dituzte. Eta ekainaren 16rako Irati ingurura antolatu dute irteera, bizikletaz nahiz oinez egiteko.

## Kopa txapelketa eskura dauka CD Elgoibarko emakumezkoen taldeak



CD Elgoibarko nesken taldeak bihar jokatu du Kopa txapelketako azken partida, eta txapelketa irabazteko aukera handiak ditu, gainera. Une honetan sailkapeneko lehenengo postuan dira elgoibartarrak, eta bi puntuko aldea daukate Urola bigarren sailkatuarekin. Hain zuzen ere, Urolaren kontra jokatu dute bihar arratsaldean, Mintxetan. Berdinketa lortzarekin nahikoa izango dute CD Elgoibarko neskek txapelketa eskuratzeko. Momentuz, partida bakarria galdu dute zuri-gorriek, hain zuzen ere, Urolaren kontra, Zumarragan. Zaleei animoak ematera joateko eskatu diete, partida oso garrantzitsua delako. 18:15ean hasiko da norgehiagoka.

### Kirol udalekuetan izena emateko epea zabalik

Maiatzaren 2an zabaldu zuen Kirol Patronatuak udalekuetan izena emateko epea, eta nahi duenak oraindik badauka izena emateko aukera. Patronatuko bazkideek 85 euro ordaindu behar dituzte parte hartzeko, eta gainerakoek, 95 euro. Aurten bi mailatan banatuko dituzte partaideak: 2001 eta 2005 urteen artean jaiotakoek bi kirol jarduera izango dituzte egunero, astelehenetik ostiralera, eta jolasak izango dira nagusi. 1997 eta 2000 urte bitartean jaiotako gazteek bestalde, Goi Mailako Kirol Udalekuan parte hartzeko aukera izango dute. Hauek ahalegin eta exijentzia maila handiagoko kirolak landuko dituzte. Udalekuak ekainaren 25ean hasi eta uztailaren 20an bukatuko dira.



# Dani Arenas hirugarren, Hego Euskal Herriko kulturismo txapelketan

Kursaaleko Irekian hartuko du parte domekan

**D**ani Arenas kulturista elgoibartarrak Hego Euskal Herriko kulturismo txapelketan hartu zuen parte Bilbon, eta hirugarren egin zuen. 1,75 metrora arteko kategorian hartu zuen parte elgoibartarrak, eta hirugarren postu horrekin oso pozik amaitu zuen proba. Lau hilabetez entrenatu gabe egon zen osasun arazoengatik, eta azaroan hasi zituen probarako prestatze lanak. Iñigo Ortiz de Mendibil entrenatzailearen laguntzarekin, eta Arenasen ahaleginari esker, uste zue-  
na baino sasoi hobean iritsi zen txapelketara, eta lortutako emaitzak lanean jarraitzeko indarra eman diola aitoren



tu du. Datorren domekan bertan Donostiako Kursaaleko Irekian hartuko du parte, eta ondoren, Espainiako kulturismo kopa jokatuko du.

## Mugertza krosa Espainiako hiru onenen artean sailkatu dute

Atapuercako (Burgos) eta Italicako (Sevilla) kros ezagunen segidan, hirugarren postuan sailkatu dute Elgoibarko Mugertza Krosa, Espainiako Atletismo Federazioak argitaratu duen sailkapen ofizialean. Mugertza krosaren antolatzaileek pozez jaso dute sailkapenaren argitarapenaren berria, eta orain arte egindako lanaren saritzat hartu dute. Honenbestez, inoiz izan duen mailarik altuena lortu du Mugertza krosak. 2013ko urtarrilaren 13an jokatuko da krosaren 70. edizioa, eta Mammo Woldek Elgoibarren estreinakoz korrika egin zuenetik 50 urte pasa direla ospatuko dute.

## Imanol Alvarezek irabazi du Arrasateko txirrindulari txapelketa



Imanol Alvarez elgoibartarrak irabazi zuen joan zen domekan Arrasateko txirrindulari txapelketa, infantiletan. Denboraldi bikaina egiten ari da Alvarez gaztea, izan ere, zapatuan bigarren egin zuen Bergarako txapelketan. Era berean, Lagun Taldeak antolatutako Elgoibar Saria irabazi zuen apirilko azken asteburuan.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 1 – Leioa 2 (3. maila)  
Pasaia 5 – Elgoibar 1 (Erreg.)  
Elgoibar 0 – Santo Tomas Lizeoa 1 (Jub.)  
Ostadar 1 – Elgoibar 5 (Kad. A)  
Elgoibar 3 – Eibartarrak 2 (Kad. B)  
Elgoibar 0 – Eibar 2 (Ohorezko inf.)  
Elgoibar 7 – Allerru 2 (Inf. Txiki)  
Amara Berri 1 – Elgoibar 4 (Neskak)

### ESKU PILOTA

**Udaberri Txapelketa**  
Lagunak 17 – Azkoitia 22 (Nag.)  
Lagunak 13 – Tartaloetxe 22 (Nag.)  
Lagunak 3 – Intxurre 22 (Jub.)  
**4 1/2 banaka**  
Intxurre 22 – Lagunak 2 (Jub.)  
Intxurre 5 – Lagunak 22 (Nag.)  
**Debarroko txapelketa**  
Lagunak 22 – Arrasate 14 (Nag.)  
Arrasate 22 – Lagunak 14 (Jub.)  
Lagunak 22 – Eibar 6 (Jub.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 4 – Pinseque 1 (2B)

### ESKUBALOI

Pneumax Elg. 36 – Saieko 16 (Sen. mut.)  
Ereintza 24 – Tecnifuelle Elg. 35 (Sen. nesk.)  
Beristain Elg. 23 – Aloña Mendi 25 (Jub. mut.)  
Urola 18 – Lauko Elg. 28 (Jub. mut.)  
Eibar 35 – Grupo Eibar Elg. 29 (Kad. mut.)  
Aloña Mendi 12 – IMH Elg. 21 (Kad. nesk.)  
Alaves 13 – Astigarraga Elg. 24 (Kad. nesk.)  
Pulpo 19 – Txarriduna Elg. 28 (Inf. mut.)  
Amenabar 22 – Bankoa Elg. 12 (Inf. mut.)  
Aiala 14 – Ikus Elg. 25 (Inf. nesk.)  
Aterpe Elg. 7 – Urrietako 10 (Inf. nesk.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

**Zapatua, 12**  
10:30 Gipuzkoako txapelketa  
15:45 Elgoibar – Aloña Mendi (Erreg.)  
18:15 Elgoibar – Urola (Neskak)

### Domeka, 13

10:00 Elgoibar – Soraluze (Aleb.)  
12:00 Elgoibar – Ikasberri (Ohorezko jub.)  
16:30 Elgoibar – Allerru (Kad. A)

### ESKUBALOI (Kiroldogian)

**Zapatua, 12**  
9:45 IMH Elg. – Bartolo jatetxea (Kad. nesk.)  
11:45 Sanlo Elg. – Urola (Aleb. nesk.)  
12:30 Txarriduna Elg. – Urola B (Inf. mut.)  
16:00 Grupo Eibar Elg. – Eibar B (Kad. mut.)  
17:30 Astigarraga Elg. – Leizaran (Kad. nesk.)  
19:00 Lauko Elg. – Eharialde (Jub. nesk.)  
**Domeka, 13**  
11:30 Sanlo Elg. – Legazpia (Aleb. nesk.)

### ESKU PILOTA

**Barbakua, 11**  
21:45 Lagunak – Zumaia (Inf. binaka)  
22:30 Lagunak – Bergara (Nag.)  
**Domeka, 13**  
11:30 Lagunak – Eibar (Jub. 4 1/2)

## Olatu Talka kultura jaialdian hartuko du parte Dance&Smile hip hop taldeak

Kalegoen plazan izango da dantzaldia bihar, 19:30ean

Olatu Talka jaialdiko egitaraua prest dago, eta gaurtik hasita domekara bitartean 200 jarduera baino gehiago bilduko ditu jaialdiak. Aurten estreinakoz Donostiatik kanpo ere antolatu dituzte jarduerak, eta horien artean, Elgoibar izan da aukeratutako herri bat. Dance&Smile hip hop dantza taldeak hartuko du parte. Hiru zati izango ditu Elgoibarko dantza ikuskizunak: *Edurne zuri modernoa* emanaldia eskainiko dute lehenik, eta ondoren 6 eta 10 urte bitarteko *smile* txikien saioa etorriko da. Azkenik, Dance&Smile taldeak egingo du



dantzan. 19:30ean hasiko da ikuskizuna Kalegoen plazan.

### Jasone Osororen 'Ezekiel' liburua izan da gustukoena Ikastolako DBHkoen artean

Gaztetxoaren artean irakurzaletasuna sustatzeko ekimenen artean, Juul hauteskunde kanpainan antolatu berri du Elgoibar Ikastolak, eta DBHko ikasleentzat Jasone Osororen *Ezekiel* liburua izan da gustukoena. LHko lehen zikloan Gabriela Rubioren *Bukatu da* liburua aukeratu dute, bigarren zikloan Ludger Knisteren *Kika supersorgina eta dinosauroak* liburua, eta hirugarren zikloan Jeff Kinneyren *Gizajo baten* egunkaria. Ilustratzaile gustukoena Juan Luis Landa izan da.

### Klarinete kontzertua gaur, musika eskolako atarian

Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, klarinete emanaldia eskainiko dute gaur arratsaldean, musika eskolako atarian. Elvis Presley, Tchaikovsky edota Abba taldeen abestiak entzun ahal izango dira, besteak beste, Alberto Iriondo irakaslearen zuzendaritzapean. 18:00etan hasiko da kontzertua.

### Santana jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Mendaroko Udalak Santana jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Edozein kolore edo eratako lanak aurkeztu daitezke, A4 formatoan. Dena dela, ezinbestekoa da ondorengo testua agertzea: *Mendaron, 2012ko Santana Jaiak uztailaren 25etik 29ra*. Lanak maiatzaren 25erako aurkeztu beharko dira Mendaroko udaletxean, eta epaimahaiak maiatzaren 31rako jakinaraziko du irabazlearen izena. Irabazleak Debako Kresala Aisia hotelean relax-gastronomiko bonua jasoko du.


## 'Gazta zati bat' dokumentala aurkeztuko du Jon Maiak hilaren 17an Herriko Antzokian



Arnaldo Otegiren aldeko plataformak eta Ongarri zine-klubak antolatuta, *Gazta zati bat* filma emango dute datorren egunean, Herriko Antzokian. Jon Maiak zuzendu du filma, eta bera etorriko da pelikula aurkeztera. Autodeterminazio eskubideen defentsa du ardatz filmak, eta Euskal Herria eta Eskozia dira eszenatoki nagusiak. Gazta munduaren metafora da, Idiazabal munduaren erdigunea eta Eskozia Euskal Herriaren ispilua. Halaxe definitu ditu kontzeptuok Jon Maiak. Gaztagatik famatua den herrialde batek gazta zati bat eskatuko du, erabakitzeko eskubidea, alegia. 21:30ean hasiko da pelikula.

## 'Show Park' antzerkia gaur, Herriko Antzokian

Spasmo taldeak *Show Park* antzez-lana taularatuko du gaur iluntzean Herriko Antzokian. Herri guztietan daude parkeak, eta parke guztietan daude jarlekuak. Gure bizimodua ikusten duten jarlekuak. Zer gertatuko litzateke horietako jarlekuren batek hitz egingo balu? Umorezko ikuskizuna da, eta sorpresak iragarri ditu antzerki taldeak.





# Elgoibarko Izarra kultur elkarteak bazkideen Batzar Orokorra antolatu du eguaztenerako

Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da batzarra, 19:00etatik aurrera

**D**atorren eguaztenerako, hilak 16, bazkideen Batzar Orokorra antolatu du Elgoibarko Izarra kultur elkarteak. Elgoibarko Izarrak 2012 eta 2013 urteetan bete beharreko zereginen eta hartu beharreko erabakien aurkezpena egingo dute arduradunek batzarrean, eta euren jakinarazitakoaren arabera, ezohikoa eta berezia izango da datorren asteko batzarra. Izan ere, datozen bi urteak Elgoibarko Izarrarentzat garrantzitsuak dira oso, eta horien inguruko lehen zertzeladak aipatzeko baliatuko dute bileran. Ahalegin berezia egiten dihardute bazkideak bileran egon daitezen, eta beste behin bazkideei gonbitea egin die-



2009an egin zuen elkarteak azken Batzar Orokorra.

te batzarrean parte hartzeko: "Elkartea bazkideena da, eta pauso asko eman behar ditu elkarte honek datorren urte eta erdian. Ez genuke nahi pauso horiek

bakarrik ematerik. Bazkideek lekua daukate elkartearen, eta horrela jardun nahi dugu." 19:00etan hasiko da bilera, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## Kosmodisea lehiaketan hainbat sari eskuratu dituzte Ikastolako ikasleek



Elgoibar Ikastolako ikasleek Foru Aldundiaren Kosmodisea lehiaketan hartu dute parte aurten ere, eta hainbat sari eskuratu dituzte. Lehen Hezkuntzan bi sari ekarri dituzte etxera: LH3ko Berdeak taldeak hirugarren postua eskuratu du eta LH5eko Elgokosmo taldeak, irabazi egin du bere mailan. DBHri dagokionean, lehen mailako Elgokrats taldea hirugarren lekuan geratu da eta hirugarren mailako Kosmopolittak taldeak bigarren egin du. Kosmodisea Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuaren ekimena da. Pertsona ekintzailea izateko balioak eta trebetasunak sustatzen ditu, betiere, talde-lanaz baliatuz eta Informazio eta Komunikazioaren Teknologia desberdinak erabiliz. Kursoa aretoan jaso zituzten sariak.

## Bihar itxiko dute Ikastolari buruzko argazki erakusketa

Elgoibar Ikastolak maiatzaren 2an bete zituen 50 urte, eta egun berean inauguratu zuten 50 urte horien historia biltzen duen argazki erakusketa. Argazki zahar eta berriak, idatzi historikoak, liburuak eta beste hainbat material jarri dute ikusgai Kultur Etxean. Oraindik erakusketa ikusi ez dutenek bihar izango dute azken aukera, 11:00etatik 14:00ak arte.

50. urteurrenaren harira beste hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte, eta ekainaren 9an izango da Ikastolaren Jaia. Egundik horretan bazkaria egingo dute, eta dagoeneko txartelak salgai daude, Tantaka eta Sua tabernetan. Horrez gain, Bankoan ere erosi ahal izango dira, 01380020 15 0020618493 kontu korrante zenbakian ordainketa egin. Nagusien txartelak hamar euro balio ditu, eta umeenak zazpi euro. Ordainketa egiterakoan menu kopurua eta izen-abizenak adierazi behar dira.

## LANA

### ESKAERA

- Gizonezkoa lan bila. Eraikuntzan, pintore eta igeltsero lanetan esperientzia. ☎ **677 866 495**
- Emakumea lanerako prest. Etxeko zein garbiketa lanak egiten esperientzia, eta baita umeak zein nagusiak zaintzen ere. ☎ **678 292 120**
- Emakumea orduka lan egiteko prest. Nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia. ☎ **636 581 194**
- Emakumea etxeko lanak edo garbiketarako egiteko prest. Papelak legez ditut. Orduka edo interna. ☎ **669 956 017 (Ana Maria)**
- Emakumea lan bila. Esperientzia nagusiak zaintzen. Erreferentzia onak eta papalak legez ditut. ☎ **620 591 788**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **943 531 378 / 690 925 929**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko, edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **659 101 631**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **634 887 814**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **650 152 866**
- Emakume arduratsua lan bila. Nagusiak eta umeak zaintzen esperientzia. Erreferentzia onak. Garbiketa lanak egiteko ere prest. Interna edo orduka. Ordu-tegi malgua eta lanerako gogoa. ☎ **633 150 376**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Arratsalde. ☎ **680 226 039**
- Emakumea nagusiak edo ezinduek zaintzeko prest. Gauez, etxean zein ospitalean. Autoa daukat eta ordu-tegi malgua. ☎ **662 589 611**
- LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditut. Titulu eta esperientzia ditut. ☎ **636 385 151**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Tabernan laguntzeko ere prest nago. ☎ **626 292 587**
- Gizonezkoa lanerako prest. Zerbitzari edo garbiketa lanak, eraikuntzan edo nagusiak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **626 292 587**
- DBH 4. mailara arteko klase partikularrak ematen ditut. ☎ **676 722 556**
- Emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna, Interna edo orduka egingo nuke lana. Papalak ditut. ☎ **664 182 488**
- Emakumezkoa pertsona nagusiak zaintzeko prest, edozein ordutan. ☎ **943 74 00 33 / 682 255 834**
- Emakume elgoibartarra eta euskalduna naiz. Lanerako prest. Esperientzia handia daukat dendan, tabernan, umeak zaintzen...

☎ **661 972 484**

- Erizain laguntzaile tituludun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **680 386 064**

### ESKAITZA

- Lantegi bateko bulegoan lan egiteko neska bat behar da, harreman zuzena. Jardunaldi erdia. Curriculumak fax zenbaki honetara bidali. ☎ **943 756 112**
- Klase partikularrak jasoko nituzke, ikastolako ikaslea izan den pertsona batengandik. ☎ **608 312 572**
- Dietista-nutritzailea behar da Elgoibarko enpresa batean lan egiteko. ☎ **618 259 343**

### GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut erdialdean, Plaza Txiki inguruan. ☎ **688 637 301**
- Garaje itxia alokatzen dut kiroldegi parean. ☎ **678 779 386**
- Garajea salgai edo alokairuan. San Roken, kiroldegi parean. Itxia. ☎ **615 758 480**

### ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **620 664 454**
- Bi logelako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **678 292 120**
- Etxebizitza alokagai Pedro Muguruzan. Hiru logela, egongela, sukalde, trastelekua. Eguzkitsua. Lehen solairua. ☎ **659 192 356 / 626 957 477**
- Etxebizitza alokagai Basarte 4, 1ean. Altzariekin. Oso egoera onean. Iggogailua dauka. ☎ **943 749 068 / 634 486 339**
- Etxebizitza alokagai San Frantzisko kalean. Logela bakarrekua. ☎ **660 609 658**
- Etxebizitza alokagai Ubitarten. Bikote batentzat. Bi logela, egongela, sukalde amerikarra. Oso eguzkitsua. ☎ **943 742 442**
- Atikoa alokatzen dut San Frantzisko kalean. Logela bat, komuna, egongela, sukalde-jangela. Dena berria. ☎ **680 707 639**
- Etxea salgai Mendaron, Garagartzan. Zaharra, baina txukuna. Baratza eta txabolarekin. ☎ **943 694 328**
- Mendaron etxea alokagai, bi logela, komuna, sukalde, trastelekua etxe gainean, logela guztiak kanpora ematen dute, eguzkitsua eta altzariekin. ☎ **635 716 731**

## LOKALAK

- Ileapaindegia alokatzen dut, oso merke. Arrazoi pertsonalengatik. ☎ **667 806 737**

## IBILGAILUAK



- Autokarabana salgai, egoera oso onean. Fiat Ducato, 1994koa. Oso-osoa ekipatua. 5-6 lagunentzako. 15.900 euro. ☎ **671 841 563**

## BESTELAKOAK

- Ikeako Strind kristalezko mahai borobila salgai. 301.571.03 erreferentzia. Estreinatuta gabe. ☎ **669 230 205**
- Bizikletan ibiltzeko zapatilak galdu ditut, Pista Beltzean. Aurkitu dituenak, deitu mesedez. ☎ **606 747 756**

## KINTOAK

- 1962an jaiotako mendaroarak kinto bazkaria egingo dute ekainaren 2an. Interesatuak Morroskillo dendan edo **943 033 631** telefonoan eman dezakete izena, hilaren 24a baino lehen.
- 55 urte egingo dituzten elgoibartarak bazkaria egingo dute maiatzaren 26an. Interesatuak 55 euro ordaindu beharko dituzte hilaren 18rako, Kutxako kontu korronte honetan: **2101 0036 60 0128193893**
- 46ko kintoek Txatxarramendira irteera egingo dute maiatzaren 19an. Interesatuak 65 euro ordaindu beharko dituzte hilaren 17rako, Kutxako kontu korronte honetan: **0128219433**
- 1952an jaiotako eta aurtun 60 urte egingo dituzten elgoibartarak bazkaria egingo dute ekainaren 16an, Belaustegi jatetxean. Interesatuak 85 euro sartu behar dituzte, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: **3035 0007 26 0071124362**. Joan-etorria autobusez.

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.





• Zorionak, **Saioa**, marisorgintxo! Etxeko denon partez.



• Zorionak, **Oler**, zure urtebetetzean. Familia guztiaren partez, baina bereziki kandela itzaltzen lagunduko dizun arreba Mirenen partez.



• Zorionak, **Olatz**, maiatzaren 7an 10 urte egin zenituelako. Anai-arreba Aitor eta Uxuek, guraso, lehengusu eta amama Ankorak.



• Zorionak, **Maialen**, zure hamabigarren urtebetetzean. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Hodei**, maiatzaren 30ean 4 urte bete zenituelako. Muxu asko denon partez. Mundiala zara!



• Zorionak, **Ines**. Hilaren 6an urtetxo bat egin zenuelako, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Ane**, joan zen astean 9 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki ahizpa Malenen partez.



• Zorionak, **Garazi**, maiatzaren 3an 8 urte egin zenituelako. Muxu bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Izaro**, maiatzaren 9an 8 urte egin zenituelako. Anaia Urko, guraso eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Nerea**, hilaren 1ean 2 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, etxeko denon partez.



• Zorionak, **Manex**, gaur 6 urte betetzen dituzulako. Familiakoen partez.



• Ardoak bezala urtetik urtera hobera egiten duzu zuk. Zorionak, **Miren**, eta urte askotarako. Kepa, Kira eta Simonek.



• Bost urte abenturaz, bihurrieriaz eta zoriontasunez beteak. Zorionak, **Kiral**



• Zorionak **etxeko soriginari**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eguna. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Unai**, aste honetan zure zortzigarren urtebetetzea izan delako. Patxo potolo bat familiakoen eta bereziki Martinen partez.




• Zorionak, **Aimar**, astelehenean 4 urte beteko dituzulako. Muxu asko familia eta bereziki Xubanen partez.



• Zorionak, **Lorea**, gaur 6 urte! Muxu asko Garate eta Otxobikiren partez.



• Zorionak, **Sare** eta **Beñat**, zuen hirugarren eta zazpigarren urtebetetzeetan. Patxo bat familiako guztien partez. Aupa Athletic!




• Zorionak, **Paula**, gaur 2 urte beteko dituzulako, eta zorionak, **Julen**, domekan 3 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Jon**, maiatzaren 3an urtebete egin zenuelako. Muxu handi bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Helene**, zure seigarren urtebetetzean. Patxo handi bat, etxekoen partez. Ondo pasa eguna!



• Zorionak, **lore txipristinduak!** Gertuko eta urrutikoak! Gabonek bezala, udaberririk batzen gaitu betikuak. Zorionak.



**AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU**  
 Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€.  
 hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

**ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK**  
 Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€.  
 hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO**  
 bulegora, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## 11 barixakua

### Musika

18:00 Klarinete kontzertua  
Musika Eskolako atarian.

### Ikusentzunezkoa

19:00 Bideo emanaldia  
Mendaroko mendi lasterketako bideo emanaldia, Mendaroko Gaztetxean.

### Antzerkia

20:30 'Show park'  
Spasmo Teatroak aurkeztuko du, Herriko Antzokian..

## 12 zapatua

### Manifestazioa

17:00 'Bateragune auzia'  
Arnaldoren aldeko plataformak deituta, Kalegoen plazatik.

### Dantza

19:30 'Olatu talka'  
Kalegoen plazan.

## 14 astelehena

### Elkarretaratzea

19:00 'Bateragune auzia'  
Kalegoen plazan.

## 17 eguena

### Kultura

17:00 Ipuin kontalaria  
Miriam Mendoza ipuin kontalariaren saioa, Udal Liburutegian.

### Aurkezpena

19:00 'Baketik' egitasmoa  
Lokarri eta Baketik elkarteko kideek aurkeztuko dute egitasmoa, udaletxeko Pleno Aretoan.

### Bakarriketak

22:00 Antonio Andevalo  
Tantaka tabernan eskainiko du saioa.

## 18 barixakua

### Hitzaldia

19:00 ADNa aldatzeko erremintak  
Thutam Guillamot kosmosozioologoak eskainiko du hitzaldia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



**Maiatzaren 18an Aste Nagusiko txupinazoa: buruhandiak, zezenkiletak eta dantzaldia, 5-12 urteko haur guztientzat.**



**Maiatzaren 27an, arratsaldean, Olabarriako kartingera goaz. Izena emateko ekarri 10€ euro Gaztelekura.**

### OKINDEGIA

13 domeka FOTERO

### BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

#### Egunez

9:00 - 22:00

11 Garitaonandia  
12 Etxeberria  
13 Etxeberria  
14 Fernandez  
15 Yudego  
16 Zabaleta  
17 Barrenetxea

#### Gauetz

22:00 - 9:00

Garitaonandia  
Etxeberria  
Etxeberria  
Yudego  
Yudego  
Etxeberria  
Barrenetxea

#### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

## ZINEA

### «Battleship»

12, zapatua: 19:00/22:15  
13, domeka: 19:00  
14, astelehena: 21:30



«Battleship» Zuz.: Peter Berg. EEBB, 2012. Iraupena, 131 minutu. Generoa: Zientzia fikzioa. Aktoreak: Taylor Kitsch, Brooklyn Decker, Alexander Skarsgård, Rihanna, Liam Neeson. Flota hondoratu mahai-joko ezagunean oinarritutako filma da Battleship. US Navy eta flota alienigena baten arteko guda izango da. Itsaoan, lurrean eta unibertsoan kokatutako fikzio istorioa kontatzen du pelikulak.

### «Lorax en busca de la truffle perdida»

(Ongarri zine-kluba)  
13, domeka: 16:30

### «Gazta zati bat»


(Ongarri zine-kluba)  
17, eguena: 21:30

«Gazta zati bat» Zuz.: Jon Maia. Iraupena: 99 minutu. Dokumentala. Jon Maia bertsolariak zuzendutako dokumentalak autodeterminazio-eskubidea du hizpide. Gaztagatik ezaguna den Euskal Herriko herri txiki batean hasiko da filma. Europako azken guda armatuak eragindako gatazka alde batera utzi, eta munduan zer izan nahi duten erabakiko dute. Euskal Herria eta Eskozia izango dira protagonistak.



**Egin ezazu  
nahi duzun  
konbinazioa!**

**Mila aukera dituzu!!**



**elgoibar  
ikastola**

**konfiantzan IKASTOLA**  
HH 0-1ean  
irailean eta urrian hasteko  
matrikula zabalik  
maiatzaren 14tik 31ra

**Ikastola ezagutzeko  
aurkezpen bilera  
maiatzaren 14an  
19:00etan**



# Herri Gain

jatetxea

Idotorbeko errepidean, 1,5. Km.

Tel.: 943 743 040



**Ezkontzak, jaunartzeak,  
enpresa bazkariak,  
urtebetetzeak...  
egiten ditugu.  
ZATOZ aurrekontu  
batekin eta  
horri egokitutako  
menua egingo dizugu!**

**Maiatzeko azken  
bi asteburuak  
MENU BEREZIA  
(aurrez enkargatua)**

**HASIERAKOAK  
LEGATZ ZATIAK  
POSTREA eta EDARIA  
17€**

**ZURE ZAIN GAITUZU!!**

**Garraio zerbitzua  
personako 3€**

**ORDUTEGIA**  
Astelehenetik ostegunera 10:30etik 22:30era  
Ostiraletik igandera 10:30etik itxi arte.

**GURE BEREZITASUNA**

**Arrainak eta haragiak parrilan!**

**Karta**

**Eguneko menu berezia 20€**

